

Nazioarteko ikertzaileak M.U.k ikerkuntza ekonomiko eta estrategikoa lantzeko sustatutako lehenengo topaketan parte hartzen ari dira

2007/12/11

Arrasate, 2007ko abenduaren 4a. Ekonomia sozialaren eta kooperatibismoaren esparruko hainbat ikertzaile internazional Mondragon Unibertsitatean biltzen ari dira egunotan, Mondragon Unibertsitateak ekonomia eta estrategia ikertzeko bultzatutako lehenengo topaketan. Topaketa unibertsitatearen Enpresa Zientzien Fakultateak sortutako nazioarteko sarearen barruan kokatzen da, hau da, Mondragon Komunitate Akademiko Kooperatiboaren barruan (MKAK), eta bere helburua da kooperatibismoari buruz oro har eta zehazki MCCko esperientziari buruz mundu osoan ikertzea eta informazioa hedatzea. Sarearen asmoa mundu mailako erreferentzia bihurtzea da, kontuan hartuta kooperatibak eta ekonomia soziala gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla, eta horien adierazpen desberdinen kopurua eta eragina progresiboki handitzen ari direla sektore ekonomiko desberdinetan.



Egun hauetan zehar, kooperatibismoaren eta ekonomia sozialaren arloan munduan erreferentzia diren hamabost ikertzaile Mondragon Unibertsitatean elkartzen ari dira, sarearen helburuetan aurrera egiteko asmoarekin. Sei ikertzaile europarrek, hiru amerikarrek eta Mondragon Unibertsitateko bostek osatzen dute adituen taldea, eta mugimendu kooperatiboan eta ekonomia sozialaren bidean norantz jo aztertzea eta eztabaidatzea dute helburu. Eginkizunen artean, ikerketarako ildo orokorrak eta proiektu zehatzak aztertzea eta eztabaidatzea dute, lehenengo fasean, MCCko kooperatibetara zuzenduta, eta gerora beste enpresa batzuetara zabaltzeko asmoarekin.

Helburuak

Mondragon Komunitate Akademiko Kooperatiboak MCCren esperientziari buruzko ikerketa eta azterketa zientifikoak egingo eta sustatuko ditu, jakintza arlo desberdinetan (ekonomia, kudeaketa, soziologia, zuzenbidea, antropologia, psikologia, historia, lan harremanak...). Gainera, datu eta dokumentu zentro bat eta liburutegia sortuko ditu, kooperatibismoari buruz lanean edo ikasten ari diren pertsonen erabiltzeko.

Plataforma berriaren beste helburu nagusietakoa munduan kooperatibismoaren inguruan dauden esperientzia desberdinen arteko komunikazioa bultzatzea da, elkarrengandik ikasi ahal izateko. Horrek, halaber, aukera emango du dauden harremanak eta sinergiak antolatzeke eta ideiak partekatzeko.

Mondragon Komunitate Akademiko Kooperatiboaren beste zereginetako bat prestakuntza profesionala eta akademikoa sustatzea da eta, horretarako, masterrak eta doktoretzak antolatuko ditu, eta prestakuntza estraakademikoa ere eskainiko du, munduan zehar erakunde kooperatiboak osatzeko interesa duten pertsonen zuzendutako ikastaroen eta tailerren bitartez. Horretarako, MKAKek bi urtean behin Munduko Biltzar bat antolatuko du, Arrasaten gauzatzekoa.

Plataformaren beste jarduera ildo bat irakasle eta ikertzaileei bideratutako programak sortzea da. Irakasleei dagokienez, irakaskuntza egonaldiak egiteko programak dira, eta ikertzaileei dagokienez doktore tesiak egiteko beka programa bat abiaraziko da.